

2013ko MARTXOAREN 19ko UDALBATZARRA
PLENO DE 19 DE MARZO DE 2013

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

KONTUHARTZAILEA / INTERVENTOR: IÑIGO URDANGARIN ZURUTUZA (2. puntua bukatu arte / Hasta finalizar el 2º punto).

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAko Herriko Etxea

Eguna: 2013-03-19

Ordua: 19:30

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA

Día: 19-03-2013

Hora: 19:30

Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2013.eko otsailaren 12an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 12 de febrero de 2013, por unanimidad SE APRUEBA.

2.-2013. urteko AURREKONTU OROKORRA ONESTEA.

2.- APROBACIÓN PRESUPUESTO GENERAL 2013.

Kontu-hartzaileak 2013.eko aurrekontuaren

El interventor explica el contenido del presu-

edukia azaldu du eta, ondoren, honako adierazpenak izan dira:

Jose Manuel Portu:

Onartu behar dute sobera konformea ez badaude ere biomasaren gaiarekin, ez dute kontrastatu. Espero dute biomasarena kudeatzean ekarpenak jasotzeko irekia egotea. Bere garaian beste teknikoaren informazioa eskaini zuten.

M. Sol Taberna:

Biomasari buruz informazioa izan dute, berari ez baina, orduan, bere taldeko buruari bai. Teknikoarena erran zioten baietz etortzen ahal zela.

*Beste aldetik, aurten txarra izanda ere, gero-
ra begira gastuak aztertu behar dira.*

Santiago Alzuguren:

Badaki aurten, kontuhartzaila egoera berezia izan dela oposaketengatik baina, bere ustez, aurrekontuaren gaiarekin lehen hasi behar dela.

Juan Losa:

Baietz emanen dio aurrekontuari.

Horren ondoren, idazkariak prozedura eta erabakiaren edukia azaldu du eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 2013.eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektua, non Udal Aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartzen baitira.

Ikusirik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201.4 artikuluari jarraikiz Kontuhartzaitzak eta Idazkari-tzak egindako txostenak.

ERABAKI DUTE:

1) 2013.eko Aurrekontu Orokorra, arestian aipatutakoa, hasiera batez onestea.

puesto para 2013 y, posteriormente, se realizan las siguientes intervenciones:

José Manuel Portu:

Aprobarán el presupuesto aunque no están demasiado conformes con el tema de la biomasa, no se ha contrastado. Esperan que cuando se ejecute se esté abierto a recoger aportaciones. En su momento ofrecieron la posibilidad de información por otro técnico.

M^a Sol M. Taberna:

Sobre la biomasa han tenido información, quizá a él personalmente no, pero a el responsable de su grupo entonces sí. Sobre lo del técnico les dijeron que sí podría venir.

Por otro lado, aunque este año sea especialmente malo, cara el futuro habría que analizar los gastos.

Santiago Alzuguren:

Es consciente de que este año la situación del interventor debido a las oposiciones ha sido especial pero, según su opinión, el tema del presupuesto se debería iniciar antes.

Juan Losa:

Votará a favor del presupuesto.

Tras estas intervenciones, la Secretaria explica el procedimiento y sentido del acuerdo y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto el proyecto del Presupuesto General para el ejercicio de 2013, en el que se incluyen el Presupuesto del Ayuntamiento y el de la Escuela de Música "Isidoro Fagoaga".

Vistos informes de Intervención y Secretaría emitidos en cumplimiento de lo establecido en el artículo 201.4 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio de 2013, antes indicado.

- 2) **Aipatu Aurrekontua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**
- 2) Exponer dicho Presupuesto en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos y vecinas o interesados e interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.
- 3) **Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, Aurrekontua behinbetikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.**
- 3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública señalado en el punto anterior.

Kontu-hartzaileak alde egin du.

El Interventor se ausenta de la sesión.

3.- 2013. urteko MUSIKA ESKOLA ETA UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA.-

3.- PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL Y ESCUELA DE MÚSICA AÑO 2013.-

Idazkariak aurtengo plantilla organikoa azaldu du eta, aho batez, honako erabakia hartu du:

La Secretaria explica la plantilla orgánica para este año y, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 2013. urterako Udal eta Musika Eskolako Langileen Plantilla Organiko espedientea.

Visto expediente de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y de la Escuela de Música para el año 2013.

Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconce y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".

Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones

"Nafarroako Administrazio Publikoek, e-bazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."

2012ko abenduaren 11n Osoko bilkuran Udalak Bortzirietako Euskera Mankomunitateak eginiko Bortzirietako Toki Entitateen plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunei buruzko txostena onartu zuen.

Hori dela eta, aipatu txostenari jarraikiz.

Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) 2013. urterako Eskola Musika eta Udal Langileen Plantilla Organikoa hasiera batez onestea.

2) Organismo autonomo eta Udaleko lanpostu guztiak eskuratzeko, nahiz funtzionarioenak zein kontratatuenak, euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea espedientean eta erabaki honetan adierazten den jakite mailaren arabera.

3) Aipatu plantilla, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarri Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioak ez balego, plantilla behin-betiko onestatzat hartuko dela ohartaraztea.

Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vascuence sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 11 de diciembre de 2012 aprobó el informe sobre perfil lingüístico a establecer en los puestos de trabajo de las plantillas orgánicas de las Entidades Locales de Bortziriak realizado por la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak.

Por lo que, teniendo en cuenta el citado informe.

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2013.

2) Establecer que para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de contratado, el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el expediente y en este acuerdo.

3) Exponer dicha plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto ante-

4.- UU24AN, (9. P., 379 L.), UDAL PLAN OROKORRA ALDAKETAREN XEHAKATUA EGITEKO BEHIN BETIKO ONESTEIA: -----

Idazkariak gaia azaldu eta gero, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, UU24an (379. lur-zatia, 9. poligonoa) Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatu egiteko espedienteak, -----k sustatua.

Dokumentazioa: Planaren Aldaketa Xehakatuaren proiektua, -----arkitektoek egina, 2012ko martxoan eta 1. eranskina, ekainekoa.

Testu Bateratua: Planaren Aldaketa Xehakatuaren proiektua, -----arkitektoek egina, 2012ko abendukoa.

Ikusirik, honi buruz Nasuvinsaren txostenak, 2012ko ekainaren 12 eta abuztuaren 21ekoa.

2012ko urriaren 9an Udaltzaren espediente hau hasiera batez onartu zuen.

Jendaurreko epean ez dute alegaziorik aurkeztu.

Kontuan hartuz, hasierako onespenean testu bateratua aurkezteko eskatzen ziola behin betiko onespena egin baino lehen eta hori 2012ko abenduaren 19an aurkeztu duela.

rior.

4.- APROBACIÓN DEFINITIVA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN UU24 (P. 9, P. 379): -----

La Secretaria informa sobre el asunto y, seguidamente, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de modificación pormenorizada del Plan General Municipal, en la UU24 (parcela 379, polígono 9), promovido por -----

Documentación: Proyecto de modificación pormenorizada del plan, redactado por los arquitectos -----, de fecha marzo de 2012 y anexo nº 1 de junio del mismo año.

Texto Refundido: Proyecto de modificación pormenorizada del plan, redactado por los arquitectos -----, de diciembre de 2012.

Vistos informes de Nasuvinsa de 12 de junio y 21 de agosto de 2012.

Con fecha 9 de octubre de 2012 el Pleno aprobó inicialmente este expediente.

En el plazo de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

Teniendo en cuenta que en la aprobación inicial se le requería la presentación de un texto refundido antes de la aprobación definitiva y que éste ha sido presentado el 19 de

Ikusirik, Nasuvinsak testu bateratu honi buruz eginiko txostena, 2013ko otsailaren 12koa, eta behin betiko onestearen aldekoa dela.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak 2012ko urriaren 1ean egindako txostena

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.3, 74 eta 81.1) artikuluekin bat etorriz.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) -----k aurkeztutako Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua, UU24an, (9. poligonoa, 379. lur-zatia), behin betiko onestea.

2) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

3) Behin-betiko onespén hau bai eta haien barreneko hirigintza arauak ere Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4) Erabaki hau nahiz onartutako Udal Plan Orokorraren aldaketa honen ale bat eta emandako txosten teknikoak Nafarroako Gobernuak Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari bidaltzea.

5.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, 4. ETA 5. SEKTOREAN ETA ONDOKO LUR-ZATIETAN (BIDASOA KARRIKA), ALDATZEKOA, HASIERA BATEZ ONESTEA.

Idazkaria gaia azaldu du eta, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 4. eta 5. Sektorean eta ondoko lur-zatietan (Bidasoa Karrika) Udal Plan Oro-

diciembre de 2012.

Visto informe emitido por Nasuvinsa sobre dicho texto refundido de fecha 12 de febrero de 2013 y que es favorable a la aprobación definitiva.

Visto informe de Secretaría de 1 de octubre emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3), 74 y 81.1) de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Aprobar definitivamente la modificación pormenorizada de la UU24 (P. 9, P. 379) del Plan General Municipal presentada por -----.

2) Notificar este acuerdo al interesado.

3) Publicar en el Boletín Oficial de Navarra esta aprobación definitiva, así como las normas urbanísticas contenidas en ella.

4) Trasladar este acuerdo junto con un ejemplar de la modificación aprobada e informes técnicos emitidos al Departamento Fomento y Vivienda y del Gobierno de Navarra.

5.- APROBACIÓN INICIAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL, SECTOR 4 Y 5 Y PARCELAS COLINDANTES (C/ BIDASOA)

Tras explicar la Secretaria el expediente, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el

korraren aldaketa egituratzailea egiteko espedientea.

Sector 4 y 5 y parcelas colindantes (c/ Bidasoa) del Plan General Municipal.

Proiektua: ----- arkitektoak egina, 2012ko abendukoa, planoak 2012ko irailekoak eta Ingurumen ondorioen Azterlana 2013ko urtarrilekoa.

Proyecto: Redactado por el arquitecto ----- de fechas diciembre de 2012, planos de septiembre de 2012 y Estudio de Impacto Ambiental de enero de 2013.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak egindako txostena, 2013ko otsailaren 27koa eta Nasuvinsaren txosten teknikoak, 2013ko urtarrilaren 30 eta otsailaren 21ekoa, espedientean daude.

Visto informe de Secretaría emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local de 27 de febrero de 2013 e informes técnicos de Nasuvinsa, de fechas 30 de enero y 21 de febrero de 2013, obrantes en el expediente.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70., 71. eta beste artikulua batzuekin bat etorritik.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, 71 y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

- 1) Lehen adierazi den 4. eta 5. Sektorean eta ondoko lur-zatietan (Bidasoa Karrika) Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea hasiera batez onestea.**
- 2) Aipatu aldaketa hilabete bateko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.**
- 3) Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak behar den txosten orokorra egin dezala hasiera batez onartu den aldaketa hau bidaltzea.**
- 4) Hasiera batez onartutako aldaketa hau Kantauriko Konfederazio Hidrografikora bidaltzea behar den txostena egin dezan.**

- 1) Aprobar inicialmente la modificación estructural de los sectores 4 y 5 y parcelas colindantes (c/ Bidasoa) del Plan General Municipal, antes reseñada.
- 2) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.
- 3) Remitir esta modificación inicialmente aprobada al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra para que emita el informe global correspondiente.
- 4) Remitir esta modificación inicialmente aprobada a Confederación Hidrográfica del Cantábrico para la emisión del informe correspondiente.

- 5) **Udal Plan Orokorraren aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, 4. eta 5. Sektorean eta ondoko lur-zatietan, aldaketa honen proiektuaren memorian zehazten diren lur-zatietan, obra baimenak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.**
- 5) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendida en el área afectada por esta modificación del Plan General Municipal, esto es, en los sectores 4 y 5 y parcelas colindantes según se detallan en la memoria del proyecto de esta modificación.
- 6) **Aipatu eremuko jabeek erabaki hau bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekurtsorik jarri.**
- 6) Notificar este acuerdo a los propietarios/as incluidos/as en el ámbito antes indicado, indicándoles que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

M^a Sol M. Taberna Iratzokik, Alkatea, alde egin du bileratik hurrengo gaia bere senide batena baita.

Lehendakaritzan Jon Abril Olaetxea, 1. Alkateordea, gelditu da Alkatea kanpoan dagoen bitartean.

La Alcaldesa, M^a Sol M. Taberna Iratzoki abandona el Pleno por que el próximo asunto es de un familiar.

Jon Abril Olaetxea, primer Teniente-Alcalde, asume la Presidencia en su ausencia.

6.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHAKATUA 10. POLIGONOKO 151. LUR-ZATIAN: KAXERNA BIDIA S.L.

6.- MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN LA PARCELA 151 DEL POLIGONO 10: KAXERNA BIDIA S.L.

Idazkaria gaia azaldu du eta, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

La Secretaria explica el tema y, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, 10. poligonoko 151. lur-zatian, Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatu izapidetzeko eskaera, KAXERNA BIDIA S.L.k sustatua.

Vista solicitud de modificación pormenorizada del Plan General Municipal en la parcela 151 del polígono 10 promovida por KAXERNA BIDIA S.L.

Dokumentazioa: Berako Udal Plan Orokorraren Aldaketa Xehakatu ----- arkitektoak egin, 2012ko azaroaren 20an dagokion Kolegioak ikus-onetsia.

Documentación: Modificación Pormenorizada del Plan Municipal de Bera redactada por el arquitecto -----, visado por el Colegio correspondiente el 20 de noviembre de 2013.

Ikusirik, horri buruz Nasuvinsak 2013ko otsailaren 8an eta Idazkaritzak 2013ko martxoaren 11n eginiko txostenak.

Vistos informes realizados al respecto por Nasuvinsa el 8 de febrero de 2013 y por Secretaría el 11 de marzo de 2013.

Kontuan hartuz, Nasuvinsak eginiko txostenean aldaketa honetako lur-zatiaren baldintzei buruz emandako arrazoiak.

Teniendo en cuenta las razones esgrimidas en el informe emitido por Nasuvinsa sobre las condiciones de la parcela objeto de la modificación.

Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/02 Foru Legearen 74. artikuluekin bat etorriz.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) KAXERNA BIDIA S.L.k 10. poligonoko 151. lur-zatian, aurkeztutako Udal Plan Orokorren aldaketa xehaketa hasiera batez ez onestea, lehen aipatu den Nasuvinsaren txostenean aipatutakoarengatik.

2) Nasuvinsak honi buruz eginiko txostenarekin batera erabaki hau interesatuari bidaltzea.

Alkateak berriro bileratu egin du.

7.- METEOROLOGIA ESTAZIO AUTOMATIKOA JARTZEKO HERRILURRA (12. P, L.150-A) OKUPATZEKO BAIME-NA EMATEA: -----

Idazkariak gaia azaldu du eta, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Udal herri-lurraren 12. poligonoko 150-A. lur-zatiko 64 metro karratu okupatzeko espedientea, meteorologia estazio automatikoa jartzeko, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak sustatua.

Udalak 2012ko urriaren 9an eginiko osoko bilkuran, 12. poligonoko 150-A. lur-zatian,

De conformidad con el artículo 74 de la Ley Foral 35/02 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) No aprobar inicialmente la Modificación Pormenorizada del Plan General Municipal en la parcela 151 del polígono 10, promovida por KAXERNA BIDIA S.L. por las razones expresadas en el informe de Nasuvinsa antes citado.

2) Remitir este acuerdo a la interesada junto con el informe de Nasuvinsa emitido al respecto.

La Alcaldesa se reincorpora a la sesión.

7.- AUTORIZACIÓN PARA OCUPACIÓN DE TERRENO COMUNAL (P. 12, p. 150-A) PARA INSTALACIÓN DE ESTACIÓN METEOROLOGICA AUTOMATICA: -----

La Secretaria explica el asunto y, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:

Visto expediente de ocupación de 64 metros cuadrados pertenecientes a la parcela 150-A, del polígono 12 del comunal de este Ayuntamiento, promovido por el Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra para la instalación de una estación meteorológica automática.

El Ayuntamiento en pleno celebrado el 9 de octubre de 2012 inició el expediente de

“Santa Barbara” alderdian, 64 metro karratuko herri-lurra okupatzeko espedientea hasiera batez onetsi zuen.

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua xedatutako prozedura egin ondoren, 86/2013 Landa Garapenerako Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren bidez, otsailaren 1ekoa, lehen aipatu den 64 metro karratuko herri-lurra okupatzeko baimena Udalak emateko baimendu du.

Gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

**1) 12. poligonoko 150-A. lur-zatian, “Santa Barbara” alderdian, 64 metro karratuko herri-lurra okupatzeko-----
-----ri baimena ematea.**

2) Interesatuari zera jakinaraztea:

2.1.) Berako Udalak onetsi zuen baldintza plegua, espedientean dagoena, hertsiki betetzearen baldintzapean dago baimen hau, batez ere, klausula berezi bat, zeinean adierazten baita okupatzen den 64 m2ko lurra herri ondaretarako itzuliko dela baimen hau bukatu edo eragin zuten helburuak desagertu edo betetzen ez badira.

2.2) Otsailaren 1eko 86/2013 Landa Garapenerako Zuzendari Nagusiaren Ebazpenari jarraikiz ematen dio Udalak okupatzeko baimen hau.

2.3) Ezarritako 12 urtetako epea hasiko da kontatzen lehengo puntuan aipatu den 86/2013 Ebazpenaren datatik aurrera eta bi aldeek adostua 12 urteka luza daiteke, gehienez, 99 urte arte, Berako Udalaren osoko bilkurak hartutako berariazko erabakiaren bidez.

ocupación de 64 metros cuadrados de terreno comunal pertenecientes a la parcela 150-A del polígono 12, en el paraje de “Santa Bárbara”.

Tras el cumplimiento del procedimiento establecido en el artículo 172 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local, mediante Resolución del Director General de Desarrollo Rural 86/2013, de 1 de febrero, se autoriza al Ayuntamiento para que conceda el permiso solicitado para la ocupación de 64 m2 de terreno comunal antes señalada.

Por mayoría absoluta, SE ACUERDA:

1) Autorizar al -----

----- la ocupación de 64 metros cuadrados de terreno comunal pertenecientes a la parcela 150-A del polígono 12, en el paraje de “Santa Bárbara”.

2) Comunicar al interesado de esta autorización lo siguiente:

2.1.) Deberá dar fiel cumplimiento al pliego de condiciones que consta en el expediente, en especial, a la cláusula de reversión del terreno de 64 m2 ocupado a favor del patrimonio comunal cuando se extinga esta autorización o en caso de que desaparezcan o se incumplan los fines que motivaron dicha autorización

2.2) Esta ocupación se autoriza de acuerdo con lo establecido en la Resolución del Director General de Desarrollo Rural 86/2013, de 1 de febrero.

2.3) El plazo de 12 años establecido se inicia a partir de la fecha de la Resolución 86/2013, citada en el punto anterior, prorrogable de mutuo acuerdo entre las partes por períodos sucesivos de 12 años, hasta un máximo de 99 años, mediante acuerdo expreso del Pleno del Ayuntamiento de Bera.

2.4) Obra egin baino lehen okupatzen diren 64 m2ko mugarriztatze akta Udalaren adostasunarekin egin behar du.

3) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea, 2013ko urtarrilaren 15ean honetarako onetsitako baldintza pleguaren kopia eta 86/2013 Landa Garapenerako Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren kopia-rekin batera.

4) Herri Lurren Liburuan herri lurraren okupazio honi alta ematea.

2.4) Antes del inicio de la obra se deberá realizar un acta de amojonamiento de los 64 m2 a ocupar con el visto bueno del Ayuntamiento.

3) Notificar este acuerdo a la interesada junto con sendas copias del pliego de condiciones aprobado al efecto el 15 de enero de 2013 y de la Resolución del Director General de Desarrollo Rural 86/2013.

4) Dar de alta esta ocupación de terreno comunal en el Libro de Comunales.

8.- UDAL PLAN OROKORRAREN S2ko ALDAKETAREN AURKA JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAIAK.

Idazkariak azaldu ditu Udal Plan Orokorren S2ko aldatetaren behin betiko onspenaren aurka jarritako administrazioarekiko Auzien epaiak eta aipatu epaien jakinen gainean gelditu dira:

- 141/2011 administrazioarekiko auziari buruzko 94/2013 Epaia.

- 484/2011 administrazioarekiko auziari buruzko 95/2013 Epaia.

8.- SENTENCIAS SOBRE RECURSOS CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVOS INTERPUESTOS CONTRA LA MODIFICACIÓN DEL S2 DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL.

La Secretaria explica las sentencias recaídas sobre los recursos contencioso-administrativos interpuestos contra la aprobación definitiva de la modificación del S2 del Plan General Municipal de las que quedan enterados y enteradas.

- Sentencia 94/2013 sobre recurso contencioso-administrativo 141/2011.

- Sentencia 95/2013 sobre recurso contencioso-administrativo 484/2011.

9.- BASO JARDUERARAKO LAGUNTZEN EZABAPENAK DIRELA ETA PROPOSAMENA.

Fernando Berasain zinegotziak testuaren mozioa irakurri du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:

9.- PROPUESTA DE ACTUACIÓN ANTE LA ELIMINACIÓN DE LAS AYUDAS A TRABAJOS FORESTALES.

El concejal Fernando Berasain lee la moción y, por unanimidad, la aprueban siendo el texto el siguiente:

BERAko Udalak erabaki hau hartu du:

1. Toki Administrazioiko, Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentuak indargabetu edo ezaba dezala “Toki Entitateentzako eta Partikularrentzako Baso Lanetarako Laguntza. 2013-2014 Kanpainna” deialdia bertan behera utzi duen ebazpen, akordio edo erabakia, deialdiak zabalik jarrai dezan, eta tokiko entitateek eta partikularrek basogintza-lan aurreikusiak egiten segi dezaten.

2. Era berean, indargabetu dadila 2012-2013 kanpainako espedienteen erdiak baino gehiago kontu-sailik gabe utzi dituen akordio, ebazpen edo erabakia, lanak hasita egonik ere.

3. Behar hainbateko kontusailaz horni dadila Toki Administrazioiko, Ingurumeneko eta Landa Garapeneko Departamentua edo kasuko atala, mozio honetako 1. eta 2. puntuetan aipatutako ildoekin bat, 2012-2013 eta 2013-2014 kanpainetako espedientei eta aitzineko kanpainetatik heldu diren atzerapenei aurre egiteko.

4. Berma dadila aurrekontuen kontu-sail horien jarraipena, behar hainbateko dirutzaz horniturik, etorkizuneko PAC edo Europar Batasunaren Nekazaritza Politika indarrean dagoen bitartean. Azken PAC hori berrikitan onetsi da eta 2020ra bitarteko indarraldia izanen du.

5. Zuritu eta aztertu dadila zer bilakaera izan duten aurrekontuetako gainerako dotazioek hasierako azalpenean aipatutako beste ekimenetan (herri mendien antolamenduak, zuzeneko inbertsioak baso-ingurunean, abeltzaintza-azpiegiturak hobetzea, erreka-ibilguak mantentzea...) eta bilakaera horri buelta ematea, arestian azaldu duguna oinarri harturik.

6. Eman dakiela eragile nagusietako ordezkari zilegituei erabakiak hartzeko proze-

El Ayuntamiento de BERA acuerda solicitar:

1. Que el Departamento de Administración Local, Medio Ambiente y Desarrollo Rural revoque o anule la resolución, acuerdo o decisión por la que se deja en suspenso la convocatoria de “Ayudas a Trabajos forestales de entidades locales y particulares campaña 2013-2014”, de modo que la convocatoria siga abierta, y los entes locales y particulares puedan seguir con los trabajos silvícolas previstos.

2. Del mismo modo, se revoque el acuerdo, resolución o decisión por la cual dejan sin partida presupuestaria a más del 50% de los expedientes de la campaña 2012-2013, aún con trabajos iniciados.

3. Que se dote al Departamento de Administración Local, Medio Ambiente y Desarrollo Rural o a la sección correspondiente, de partida presupuestaria suficiente a las líneas mencionadas en los puntos 1 y 2 de esta moción para hacer frente a los expedientes de las campañas 2012-2013, 2013-2014 y los atrasos que viene arrastrando de campañas anteriores.

4. Que se garantice la continuidad de estas partidas presupuestarias con fondos suficientes hasta el periodo de vigencia de la futura P.A.C. recientemente aprobada y que abarca hasta el 2020.

5. Que se justifique y estudie la evolución que han tenido las dotaciones presupuestarias en el resto de iniciativas mencionadas en la exposición inicial (ordenaciones de montes comunales, inversiones directas en el medio forestal, mejoras en infraestructuras ganaderas, mantenimiento de cauces...) y revertir la misma en base a lo anteriormente mencionado.

6. Que se otorgue a representantes legitimados de los principales actores, la posibilidad de

suetan esku hartzeko aukera, bai eta sektoreetako estrategien osaketan zuzenean parte hartzeko ahalmena ere. Halaber, behar bezalako informazioa eman dakiela, munta handiko erabakiak hartzen direnean; finantzaketarako ildo estrategikoak bertan behera uzten direnean, adibidez.

10.- NAFARROAKO ARRANTZA ETA AHIZARI BURUZKO 17/2005 FORU LEGEA ALDATZEKO LEGEGINTZAKO PROPOSAMENA.

Alkateak proposamena irakurri du eta horren ondoren zera adierazi dute:

Juan Losa:

Onartu behar du jarduera hau gizarte eta kultur-kirola baita, eta nahiz hemen nahiz Iruñean defendatuko du.

Santiago Alzuguren:

Horren beharra norbaiti lanpostua emateko da, besterik ez, zaintza hori egiteko Seprona badago.

Beste gaineakoak onartzearen alde ageri dira. Beraz, aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak aurkeztutako idatzia non Nafarroako Arrantza eta Ehizari buruzko 17/2005 Foru Legeak zaintzari buruz xedatzen duena aldatzeko legegintza proposamena sinatzea eskatzen duen.

ERABAKI DUTE:

1) Lehen aipatu den Nafarroako Arrantza eta Ehizari buruzko 17/2005 Foru Legea aldatzeko, zaintzari dagokiona, legegintzako proposamena izenpetzea.

intervenir en los procesos de toma de decisiones y la capacidad para participar de manera directa en la conformación de las estrategias sectoriales, siendo convenientemente informados ante decisiones de calado como la suspensión de líneas estratégicas de financiación.

10.- PROPUESTA LEGISLATIVA MODIFICACIÓN LEY FORAL 17/2005 DE CAZA Y PESCA DE NAVARRA.

La Alcaldesa lee la propuesta, tras lo cual se producen las siguientes intervenciones:

Juan Losa:

La va a apoyar porque es un deporte socio-cultural y la defenderá aquí y en Pamplona.

Santiago Alzuguren:

Sólo es para colocar a alguna gente, para eso ya está el Seprona.

El resto de concejales y concejales se muestran a favor, por lo que, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto escrito presentado por la Asociación de Cazadores y Pescadores de Bera solicitando que el Ayuntamiento firme una propuesta legislativa para modificar la Ley Foral 17/2005 de Caza y Pesca de Navarra en lo referente al tema de guarderío que se contempla en dicha ley.

SE ACUERDA:

1) Firmar la propuesta legislativa para modificar lo regulado sobre el guarderío en la Ley Foral 17/2005 de Caza y Pesca en Navarra antes citada.

2) Erabaki hau Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteari jakinaraztea.

2) Notificar este acuerdo a la Sociedad de Caza y Pesca de Bera.

11.- EHIZARAKO BARRUTIAN DERRIGORREZKO ZAINDARIA IZATEAREN AURKAKO MOZIOA.

11.- MOCIÓN CONTRA LA OBLIGATORIEDAD DE GUARDA EN LOS COTOS LOCALES.

Fernando Berasain zinegotziak mozioa irakurri du eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:

El concejal Fernando Berasain lee la moción y, por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Berako Ehiza eta Arrantza Elkar-teak aurkeztutako mozioa non ehizarako barrutian derrigorrezko zaindaria kontratatzeak sortzen duen arazoa azaltzen duten.

Vista moción presentada por la Asociación de Caza y Pesca de Bera en la que explican la problemática que supone la contratación obligatoria de un guarda en el coto de caza.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Berako Ehiza eta Arrantza Elkar-teak aurkeztutako mozioa onestea.

1) Aprobar la moción presentada por la Asociación de Caza y Pesca de Bera.

2) Horren ondorioz, Nafarroako Gobernua-ri eta Nafarroako Parlamentuari eskatzea ehiza barrutian zaindaria kontratatzea de-rrigorrez ez izateko indarrean dagoen lege-ria aldatzea.

2) En consecuencia, solicitar al Gobierno de Navarra y al Parlamento de Navarra que modifiquen la legislación vigente a fin de que la contratación de un guarda no tenga carácter obligatorio.

12.- NAFARROAKO ONDAREAREN DEFENTSARI BURUZKO ERABAKIAK.

12.- ACUERDOS SOBRE LA DEFENSA DEL PATRIMONIO NAVARRO.

Alkateak Agoitzeko Udalak bidalitako Nafarroako Ondarearen defentsari buruzko erabakia irakurri ditu.

La Alcaldesa lee los acuerdos en relación con la defensa del Patrimonio Navarro remitidos por el Ayuntamiento de Aoiz.

*Juan Losak zera erran du:
Honen aurka boto emanen du ezin baita konparatu eta ez baitago batere ados irakurri duenarekin.*

Juan Losa manifiesta que votará en contra porque no se puede comparar y está en total desacuerdo con lo que se ha leído.

Beste gainontzekoak irakurritako erabakien alde agertu dira.

El resto de concejales y concejalas muestran su conformidad con los acuerdos leídos.

Beraz, honako erabakia hartu dituzte:

Por lo que, adoptan los siguientes acuerdos:

1) Nafarroako Gobernua herrialdeko udal-lerriei informazio juridiko eta historikoa

1) Que desde el Gobierno de Navarra se ofrezca a los pueblos de Navarra información jurí-

eskaintzea, beren gerri-ondarearen jatorri eta eskubideei buruzkoa, eta Eliza katolikoak bere izenean jarritako ondasunak berreskuratu nahi dituzten Udal eta Kontzejuei laguntza ematea.

2) Nafarroako Gobernuak diru publikoa-ekin egiten dituen inbertsioen berri ematea, Eliza katolikoak bere izenean jarritako ondare nafarra konpondu, hobetu eta zaintzeko, ehunekotan argi zehaztuz zenbatekoa den Nafarroako Gobernuaren, Estatuaren eta Tokiko Erakundeek ekarpen publikoa, kostu osoarekiko. Nafar herritarrek eskubidea dute jakiteko zer punturaino ordaintzen eta baimentzen dituzten, kasik erabat, Elizak pribatizaturiko ondareak.

3) Hala badagokio, atxirikik doan txostena betetzea, goiburu hau duena: “Eliza katolikoaren izenean dauden eta guztiz edo zati bat hondatuta duten eraikinen zerrenda”.

4) Udalbatza honetako ordezkari bat izendatzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Alkate eta Zinegotzien Bilerara joateko, gaia elkarrekin lantzeko. Bilera 2013ko apirilaren 6an, larunbata, izanen da, 10:30etan, Burlatako Kultur Etxean.

5) Akordio horien berri ematea Aoiz-Agoitzeko Udaleko Alkatezari, atxirikik doan txostenarekin batera.

13.- ERREPUBLIKARI BURUZKO ERA-BAKIA.

Alkateak “Unidad Cívica Navarra por la República” (UCNR) aurkeztutako mozioa irakurri du.

dica e histórica sobre el origen y los derechos de su patrimonio público y que se apoye a los Ayuntamientos y Concejos que intenten recuperar los bienes inmatriculados por la Iglesia católica.

2) Que el Gobierno de Navarra informe sobre las inversiones realizadas con dinero público en el arreglo, mejora y sostenimiento del patrimonio navarro inmatriculados por la Iglesia católica, especificando el porcentaje que suponen las aportaciones públicas desde Gobierno de Navarra, Estado y Entes locales con respecto al costo total. Los navarros y navarras tienen derecho a conocer hasta qué punto siguen financiando y manteniendo, casi en su totalidad, los bienes privatizados por la Iglesia.

3) Complimentar el impreso correspondiente relativo a “Relación de inmuebles que figuran a nombre de la Iglesia católica y que presentan aparentemente estado de ruina total o parcialmente”.

4) Designar una representación de esta Corporación para acudir a la Asamblea de Alcaldes y Concejales de los Ayuntamientos y Concejos navarros, convocada para el sábado día 6 de abril de 2013, a las 10:30 horas para tratar el tema conjuntamente en el Auditorio de la Casa de Cultura de Burlada.

5) Dar traslado de este acuerdo a la Plataforma para la defensa del Patrimonio Navarro.

13.- ACUERDO SOBRE LA REPÚBLICA.

La Alcaldesa lee la moción presentada por Unidad Cívica Navarra por la República” (UCNR).

Jose M. Portuk zera dio:
Haiek abstenitu behar dira. Espainarrek nahi dutena egitea eta euskaldunei uztea nahi dutena ere egitea.

Juan Losak hauxe:
Aurkako botoa emanen du gaurko estatua demokratikoa eta askatasun askorekin baita.

Aralar eta EAJ-PNVko zinegotziak alde agertu dira baina gehituz Euskal Herriko Errepublikari nahi dutela.

Beraz, mozioa onartu dute eta honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, “Unidad Cívica Navarra por la República”k (UCNR) aurkeztutako Errepublikari buruzko mozioa.

ERABAKI DUTE:

1) Errepublikarantz doan prozesu konstituziogile bat bultzatu, Espainiako Konstituzioak 166.dik 169.era doazen artikuluetan aurreikusten dituen demokratiko eta bakezale diren baliabideak erabiliz.

2) Ekimen hau Gorte Orokorretara, Autonomia Erkidegoetara eta Udaletara, hala nola Europar Batasunera eta Nazioarteko Erkidegora helarazi, bere azterketa eta onarpenerako, demokratiko bideetatik eramateko eta konstituzionalki eskudunak diren instituzioak ekimen honen berria argitaratzeko.

3) Egungo Estatu-eredua agorturik dagoela aditzera ematen dugu eta Konstituzioaren Erreforma eta erreferendum bat, non herritarrek nahiago duten Estatu Espainiarraren era erabakitzen den, eskatzeko deialdia, zabaltzen diegu herritarrei.

4) Estatu mailako eta Nafarroako komunikabidetara helarazi honako Hitzarmen hau.

José Manuel Portu manifiesta que se van a abstener. La ciudadanía española que haga lo que quiera y que dejen a la ciudadanía vasca hacer lo que quieran también.

Juan Losa dice que votará en contra porque el estado actual es democrático y con muchas libertades.

Las y los concejales de Aralar y EAJ/PNV se manifiestan a favor pero añadiendo que reivindican la República de Euskal Herria.

Por lo que la moción se aprueba, adoptando el siguiente acuerdo:

Vista moción presentada por Unidad Cívica Navarra por la República (UCNR):

SE ACUERDA:

1) Impulsar un proceso constituyente hacia la República, utilizando todos los mecanismos democráticos y pacíficos que prevé la Constitución Española en sus artículos del 166 al 169.

2) Hacer llegar la presente iniciativa a las Cortes Generales, a las Comunidades Autónomas y a los Ayuntamientos, así como a la Unión Europea y a la comunidad Internacional para su reconocimiento y estudio, para que transcurra por los cauces democráticos, y para que se hagan eco las instituciones constitucionalmente competentes.

3) Declaramos agotado el modelo de Estado actual, y llamamos ala ciudadanía a demandar la reforma de la Constitución, y la convocatoria de un referéndum, donde sean los ciudadanos y las ciudadanas los y las que decidan con votos democráticos, la forma de Estado que prefieren para el Estado Español.

4) Hacer llegar el presente Acuerdo a los Medios de Comunicación de Navarra y de ámbito estatal.

5) Udal honek Euskal Herriko Errepublika aldarrikatzen duela adieraztea.

5) Señalar que este Ayuntamiento reivindica la República de Euskal Herria.

14.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

14.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

1) Bandoak: B4/2013tik B13/2013ra.

1) Bandos: del B4/2013 al B13/2013.

2) Ebazpenak: 2013ko otsailaren 9ko 27. ebazpenetik 2013ko martxoaren 12ko 51.era arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 27 de 9 de febrero de 2013 a la nº 51 de 12 de marzo de 2013.

Gai zerrendatik kanpo, premiako bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau tratatu dute:

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

15.- DONAPEA IIP GAUR EGUN DAGOEN TOKIAN UZTEAREN ALDEKO MANIFESTUA.

15.- MANIFIESTO A FAVOR DE LA PERMANENCIA DEL CIP DONAPEA EN SU UBICACIÓN ACTUAL.

Manifestua irakurri ondoren, Juan Losak dio abstenituko dela eta beste gainontzekoak alde agertu dira.

Tras la lectura del manifiesto el concejal Juan Losa dice que se abstendrá y el resto de concejales y concejales se muestran a favor.

Beraz, manifestua onartu dute honako testua izanik:

Por lo que se aprueba el manifiesto siendo el texto el siguiente:

Joan den urtean Nafarroako Gobernuak protokolo bat sinatu zuen Nafarroako Unibertsitatearekin eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioarekin (FIMA) hiru ikerketa zentro eraikitze gaur egun Donapea IIP dagoen orubean; Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen Institutu hau Etxabakoizko beste orube batera eramateko. Operazio honen aurrekontua 25.000.000 € baino gehiagokoa izan daiteke.

El pasado año el Gobierno de Navarra firmó un Protocolo con la Universidad de Navarra y la Fundación para la Investigación Médica Aplicada (FIMA), para la construcción de tres centros de investigación en la parcela del actual CIP Donapea; el Gobierno de Navarra se comprometía a trasladar este Instituto a otra parcela en Echavacoiz. El presupuesto de esta operación podría ascender a más de 25.000.000 €.

Gaur-gaurkoz, badakigu Donapea Nafarroako Unibertsitate Pribatuari saltzeko operazioak lekualdatzearen kostuaren zati txiki bat baino ez duela betetzen.

Manifestu hau idazten dugunak Donapea IIPk gaur egun dagoen tokian jarraitzearen alde gaude, eta ondorioz,

Adierazten dugu:

1. Proiektu honetan ez dela aintzat hartu Donapeko eskola komunitatea, eta Instituta ikastetxearen hezkuntza-interesetatik bestelako hirigintza-operazio baten ondoriozko presioaren pean jarri dela.

2. Gaur egun Donapea IIPk dituen ikasgela, lantegi eta laborategiekin aski ongi betetzen duela esleitua duen helburua: formazio akademiko eta osoa, kalitatezkoa eta publikoa eskaintzea, hain zuzen ere.

3. Bizi ditugun krisi ekonomiko orokorreko garaiotan, gure ustez batere beharrezkoa ez den proiektu honetara bideraturiko aurrekontua gizartearen osotasunak osasunaren, hezkuntzaren, gizarte ongizatearen edo mendekotasunaren arloan pairatzen dituen hurrenez hurreneko murrizketak arintzera bidera daitekeela.

4. Horren premiazkoa eta onurazkoa bada hiru ikerketa zentro eraikitzea –guk ez dugu zalantzan jartzen hala denik–, Unibertsitate Pribatuak hirigintzarako kalifikazioa duten 450.000 m² dituela jabetzan, eta horietan aski duela eskabidea egitea dagokion eraikitze-lizentzia eskuratu ahal izateko.

5. Gure ordezkari politikoek zuhurtziari eta ardurari dei egiten diegu plan hau ez dadin gauzatu, horrek diru publikoa inongo beharrezanik gabe xahutzea lekarkeelako. Gure hausnarketarako gaitasuna sobera egiaztatuta dago eta herritar ororen interes

A día de hoy se sabe que la operación de venta de Donapea a la Univesidad Privada de Navarra solamente cubre una mínima parte del coste de su traslado.

Los redactores de este Manifiesto, que nos definimos como personas defensoras de la permanencia del CIP Donapea en su ubicación actual,

Declaramos:

1º. Que en este proyecto no se ha tenido en cuenta a la comunidad escolar de Donapea, y que el Instituto se ve sometido a la presión de los resultados de una operación urbanística ajena a los intereses educativos del Centro.

2º. Que con las actuales instalaciones de aulas y talleres, el CIP Donapea cumple el objetivo asignado: impartir una formación académica e integral, de calidad y pública.

3º. Que en los tiempos que corren de crisis económica generalizada, el presupuesto destinado a este proyecto, que consideramos absolutamente innecesario, se podría dedicar a paliar los sucesivos recortes que sufre toda la sociedad en Sanidad, Educación, Bienestar Social o Dependencia.

4º. Que si es tan urgente y beneficiosa –algo que no dudamos– la construcción de los tres centros de investigación, la Universidad Privada es propietaria de 450.000 m² calificados urbanísticamente en los que solamente necesita una simple solicitud para conseguir la correspondiente licencia de construcción.

5º. Que la responsabilidad y cordura políticas de nuestros representantes institucionales demandan la inmediata anulación de este proyecto, paradigma del derroche del dinero público en una inversión innecesaria. Nuestro análisis está sobradamente contrastado

**kolektiboak Nafarroako Unibertsitate Pri-
batuaren interesen menpe, erakunde pri-
batua dena, ezin direla egon ondorioztatzen
dugu. Horregatik guztiagatik, irmo jarrai-
tuko dugu esanez: utzi Donapea dagoen
tokian!**

y la conclusión es que los intereses generales de toda la ciudadanía no pueden estar supeditados a los particulares de la Universidad de Navarra, que es una entidad privada. Por todos estos motivos seguiremos diciendo ¡No al traslado de Donapea!

**16.- ESKARIAK ETA GALDERAK.
BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

16.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:15etan.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 21:15 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta